

Euskal kulturginok, elkartu zaitezte! (II)

# Alternatiba ala plataforma?

ez dut hemen eztabaidan sartu nahi: Zer den eta zer ez den euskal kultura. Kulturgintza euskara helbide edota helburu bezala hartu dutenei doa deia: Euskal kulturgin guztiok, elkartu zaitezte!

Printzipio bat ipiniz hasiko naiz: Lana da kulturaren iturri bakarra; giza lanaren gain eraikitzen da Herriaren kultura.

Kultur lanean diharduenari deitzen diogu kulturgina; baina kulturgintza ez da hesiz itxiatu aitorra, gizarte-sektore aukeraturen bati dagokiona. Edozein giza lan sortzaile da kultur lan. Hala ere, ba daude lanbide batzu kulturakoa bezala bereizten ditugunak. Ez naiz eztabaida horretan ere sartuko.

Gure kulturaren sailen artean, ba daude batzuk helbide (edota helburu) bezala euskara darabiltenak: Euskal antzerkilaria eta zinegileak; euskal irakasleak eta ikasleak; euskal kazetariak eta hizlariak; euskal alfabetatzaileak eta ikertzaileak; euskal gramatikagileak eta hiztezigileak; euskal kantariak eta bertsolariak; euskal idazleak eta ituztzaileak; euskal argitaratzaileak eta banatzaileak; euskal kultur eragileak eta eratzizaleak;...

Sail bakoitzean ba dira taldeak, elkarteak eta erakundeak. Alor zabala da kulturarena; eta Herri txiki honetan ere oso sakabanatuak eta barreiatuak dabiltz horko langileak, taideak, elkarteak eta erakundeak.

Inolako lan-alorretan nekez ikusiko dugu horrenbesteko anarkia. Baina zer nahi dugu? Euskal kultur sail guztiak bilduko lituzkeen Konfederazio sindikalen bat? Goazen ideia batzu argituz...

## Koordinazioa eta plangintza

Aidean eztabaidatu bagenu, ez dakit zertara iritsiko ginatkeen: agian kultur alorrek eskatzen duen askatasunaren izenean, edonolako koordinazioak eta plangintza orokorrek ukatuko genituzke. Baina ez da hori gure oraingo arazoa. Euskararen eta euskal kulturaren egoera honetan, euskara helbide edota helburutzat daukaten kulturgintzat bestela ipintzen da arazo osoa. Gure egoera jakin honen gain egin behar da galdera.

Aurreko artikularean arabera,

eta zapi urtetako bideari jarraiki, euskal kultur munduaren barruko koordinazioaren eta plangintza orokorren premia onartuta dagoela uste dut.

Dikaturaren garaian denok elkartzen ginduen kidetasun primitibo baina behinen batek; elkarririk eusteko behar-beharrezkoa nabari genuen, tunel hartan nor bere aldetik itota ez gelditzeko, eta argi berriaren uste ona guztiontzako eta euskal kulturarentzat suspertzeko.

Baina garai "berria" etorri zenean ez zen aski sailen (taldeen, elkarten eta erakundeen) kidetasun behinen hori; ez zen aski funtsezko solidaritasuna. Beharrezkoa zen denen arteko koordinazioa eratzea, ekintza guztiak osoan hartzea eta abiaburu-helburu oinarritzko eta nagusi batzuren inguruan bateratzea. Horixe da, hain zuzen, zappi urteotan lortu ez duguna. Eta arazoa gero eta larriagoa da. Horrela senditzen dugula uste dut, denok edo gehien-gehienok behintzat.

Baina zein abiaburu eta helburu dute koordinazio-plangintza horiek? Nork eragin behar die? Nola eratu behar dira? Horra erantzun beharreko galderak, benetan zappi urteotako etsipenak gaindiuko baditugu eta esperantzak mamitu.

## Euskal Kultura eta Instituzio Publikoak

Euskal kulturaren plangintza orokorra eta kultur talde-erakundeen arteko koordinazioa aipatzean, berehala sortzen da Instituzio publiko politiko-administratiboei buruz hartu behar den jokabidearen eta horiek duten eginkizunaren arazoa.

Herri honen mundu politikoa gertatzen den banaketa nabarmena ezaguna da: instituzio barrukoaren aldekoen eta instituzioez kanpokoaren aldekoen arteko banaketa, alegia. Egia esan, banaketa hori ere ez da erabatekoa. Baina hor dago, eta nabarmena da. Arriskua dago —eta benetako—, banaketa horixe bera kulturaren alorrera eramatekoa.

Hasteko, kulturaren alorra instituzioez kanpokoak da noski; baina ez da inola ere instituzioez kontrakoak. Kultur lana kulturaginek egiten dute, eta kultur talde, el-

karte eta erakundeek eratzen: baretik, oinarritik, gizartetik, herrietik sortutakoek, eta ez goitik ezarriek (edo, goxoago izatekotan, "ipiniak"). Herriarra da kultura, herria beronen esanahi behinenez ulertzen badugu: hau da, botere instituzional —politiko, ekonomiko eta ideologiko— guztiak buruz berezia. Horregatik, euskal kultur talde, elkarte eta erakunde "herriarrei" beraien dagokie aurren-aurrenik beren arteko koordinazioa lortzea eta kultur alorraren plangintza orokorra lantzea. Beste inolako alorretarako baino gehiago balio du kultur alorrerako agintaritzako publikoaren "subsidiaritasun-printzipioak".

Euskal kultur alorreko koordinazio zabala eta plangintza orokor funtsezkoa bideratzean ezin daiteke hasi instituzio publikoei buruzko jarrera eta jokabide aprioristikoa eta ukakorrek. Irreka izan behar du, hasteko; baina erabat autonomoa ere bai. Instituzio publikoei beraien utzi behar zaie beren jokabidea har dezaten, euskarari, euskal kulturari eta euskal kultur talde, elkarte eta erakundeak buruz. Beraien erantzukizunaren aurrean jarri behar dira. Eta beraien erantzunaren arabera, euskal kulturaginek zehatziko dute beren jokabidea haien buruz.

Guzti hori kontutan eduki beharra dagoela uste dut euskal kultur alorreko koordinazioa abiatzeko. Horren arabera, euskal kultur alorreko koordinazioak ez dauka Eusko Jaurlaritzatik edo beste nonbaitetik etor daitekeen plangintza orokorren zain egotirik. Jarrera antzua litzateke hori. Euskal kulturaginei beraien dagokie, aurrenik, euskal kulturaren plangintza funtsezko eta orokorra egitea: ez administrazio publikoari eta ez inolako proiektu politiko konkretuari lotuta legokeena. Administrazio publikoari ere ba dagokio euskararen eta euskal kulturaren normalpenarako plangintza orokorra egitea, baina administrazioaren ikuspegitik, eta ez kulturgintzaren ikuspegitik. Bi ikuspegi horiek hobeto zehatzu beharra dago; baina, hasteko, ez dago biak nahasterik eta maila berdinean jartzerik. Zappi urteotan ez euskal administrazio publikoak eta ez euskal kulturaren alo-

rrak asmatu du plangintza orokorra egiten: bakoitzak bere ikuspegitik.

Indar kulturazkoek ez dute boteredunei edo administrazio publikoari kulturako "alternatibarik" jartzekorik; askotan erabili da hitz hori, baina, nere ustez, nahasketa besterik ez du sortu, eta ezinaren mina. Administrazio publikoaren kultur politika eta plangintza orokorri alternatiba, beste indar politiko alternatiboei bakarrik jarri diezaioke.

## Jarkierako plataforma

Ez dago zalantzarik, indar kulturazkoen kultur "alternatiba"ren asmoa, euskal instituzio publikoen eta bereziki Eusko Jaurlaritzaren politika zabalik eta plangintza orokorri ezaren hutsunea betetzera bezala etorri nahi zuela. Baina koordinazioaren bila gabiltzako jarrera eta daukagu "alternatibaren" bideak albatzerik: administrazioaren alternatibatik, alegia. Euskararen eta euskal kulturaren "plataforma" zabal bat izan behar du kultur indarren koordinazioak.

Jarkiera edo erresistentziarako plataforma. Euskal kulturaren oraingo helburu estrategikoa normalizazioa da; eta normalizazio horretan, berriz, oraingo egoeran, erresistentziak definitzen du bere taktika. Jakina, ez dago hemen eta orain euskararen eta euskal kulturaren "egoera hori" aztertzen hasi beharrik: Egoera, inguruz eta dinamika.

Hasteko, esan beharra dago, jarkieraren taktika ez dela alternatiba bezala mamitzen. Edonolako alternatiba politiko-administratibo jakinen aurretiko programa da erresistentziarena.

Erresistentzia, ordea, ez da slogan hutsa. Izpiritu batekin batera, programa eskatzen du, ardatz nagusi batzuren inguruan egituratua.

Ardatz horien arabera, honela definituko nuke nik euskal kultur talde, elkarte eta erakundeen koordinazioa: Gizartearen jabezaren, mobilizazioaren eta ekintza bateratutako plataforma, funtsezko abiaburu eta helburu jakinen eta plangintza orokorren gainean eraitia.

Guzti hori aletu eta xehetu egin behar.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

zer edo zer

## Ken itzazu madalenak leihotik

Haize berriak datozen arren, betiko airea dakarkigute. Baretik bestera garamatzate lekuz aldatu barik. Hau dok hau!! Nobel sari batentzako ikergaia. Orainaldiko Pepe Auzobari horrek iraganeko Juanjo Arrosandi hura santu bihurtzeko bidea hartu omen duela zurrumurrusak sentitu dituzte batzuk beren larru hotzean. Aldaketa aldarrikatu eta Trukea ekarri. Peperen lehenengo gertatua da dagoeneko; Barcelona izan ere. Juan Martin Luna izan da ministro berriak hartu duen lehendabiziko kondekorazioa. On dagoiola!! Aita hil eta semearen ikasketak ordaintzeko prest. Zeren ordainez?. Hau putasmekeña!! Peperen lehenengo ezetik bigarrena, hirugarrena eta laugarrena ere gertatuak dira dagoeneko. Bigarrena, hartuak erabaki batetik dator: Oretetan, Hernanin eta Arrasaten ere kolore grisa berrozaladuko da, eta hau negu gorriari gagozela, hi!! Antza, lasalvaguardadelosderechosylibertadesfundamentales delakoko horrelaxe eskatzen du eta.

Asike, grisok zelakoak diren jakinaren gainean egonda, ba dakizue zer egin behar duzun: ken itzazu madalenak leihotik!!! Hirugarrena ere gertatu berria da: batetik "Código Penal" ezagun horren moldaketa egin behar zela esan eta, bestetik, Alcalá-Enean hotz-hotzean diren lagunok moldatu. Bero-gailurik ez zela eta ondo berotu dituzte, eta hau guztia giza-essubideen eguna ospatzen zueldea. Fariseo madarikatu!!! Eta laugarrena ere hortxe dago. "medicina preventiva" derituz horren eskutik, oraindik aurrera gagozinak hartu duen itzelreza presioan ezina izango da koktel molotovik egitea. Edo beno, lehenago biren partez bat baino ezin izango da egin.

Ondo probetxa!!! Eske da la hostia !!! Esan nuen behin, bakea lortzeko itereara bakarra zain zen, baina ez zidaten jaramonik egin. Eta berriro aldarrikatuko dut haize hotzak nire polena lur antzuan utzi arren: euskaldunok barne-ministro euskalduna nahi behar dugu bakea lortzeko, eta hori ba dago, ba dute, zertarako, orduan, ez dute Mugica Herzog jartzen?. Amen.

Hau, hori, hura. Hemen, hor han. Honek, horrek, harek. Hona, horra, hara. Hemengo, horkoa, hangoa. Urria, sendia eta Mario. Entzun al duzue honen azkena?. Hori esatea ere!!! "Biolentzia dago biologentzia dagoelako, baina biologentziarik gabeko biologentzia ez bage, biologentzia ez litzake biologentzia izango, biolento batzuren ez-biolentzia baizik" Ai es ná!!! Honek ere, hurrengo urterako Pake-Nobel Saria lortzeko bidea hartu du, ia horrela bulegoan daukaten meritu-armairu hutsa betetzen hasten diren. Eskerrak orain soldaduskara doala. Ia han gizontzen duten!!!

Printxio

## herri kirolak

# Deban ididemak urtarrilaren lehen egunetik

Urteberri izeneko XI Ididema Sariaketa ospatuko da urtarrilaren 1,2,5,6,7,8 eta 9an Debako probalekuan Ikastolak eraturik. Ididema hauek "Alfa" sariako puntuatze baliu dute eta izena eman nahi dutenek hilaren 26ra baino lehen mugitu beharko dute herri horretako Txomin jatetxera agertuz edo 601660 telefonora joaz.

Erabiliko den harria 2.000 kilokoa izango da, Ikastolarena. Aurren gainera mutur aldetik puska batzuk kenduko dizkiote hobeto arrasta dezan eta apur bat gutxiago pisa dezan, beldur izan baitziren aurreko urteetan idijabeak beren idiak Debara eramateko, harria ibiltzea zaila gertatzen zitzaienez. Askotan ikusi dira harritzar horrekin idiak azterrira, irristatu egiten baitziren. Aurren

txukundu eta arindurik, hobeto airtuko dira.

Honatz banatuko diren sariak: lehenari 80.000 pezeta, kopa eta idi mantak. Bigarrenari 72.000 pezeta eta kopa. Hirugarrenari 64.000 pezeta eta kopa. Laugarrenari 57.000 pezeta eta kopa. Bosgarrenari 50.000 pezeta eta kopa. Seigarrenari 44.000 pezeta eta kopa eta horrelako proportzioan besteei ere hamabosgarrenera arte, gainerantzekoei 14.000 pezeta emanez, baldin eta hamabina plaza egiten badute. Dieta bezala idijabe bakoitzari 3.000 pezeta emango zaizkio herriarra baldin bada, 4.000 giputza bada, 6.000 pezeta bizkaitarra bada edo arabarra edo Santardekoa.

Idipareak 1.100 kiloko limitetan jokatuko dute, hortik gorakoak

zama erantsiz eta laguntzaile bi itzai eraman ditzake nahi dituenak aukeraturaz.

## Erreterian Madalenaren idia irabazte

Joan den igande arratsaldez Erreteriako probalekuan berriari jokatuko zen utzari motzeko ididema eta herriko batek irabazi zuen, Urbietako "Madalena" deitutak alegia 64 plaza egin ondoren. Idijabea eta Markinako "Leohia" ziren itzai 1000 kiloko harriarekin. Irabazleak jokatu aurretik kontrarioak Oiarzungo Sarasolak 58 plaza 6 zinta eta 1,75 metro egin zituen idijabea eta Markinako Iketa iztzai zirela.

Trabesak Madalanaren alde ziren beti, Sarasola lanean hasi aurretik 52 plaza inguru jukatzen

baitziren egingo zirela eta 58 egin oiarzuarrek egitean jendeak zertxobait itziz aldatu bazen ere, laster ikusi zen marka hori erreteriarrek hautsiko zuela eta hala egin ere. "Leohiak" ere oso proba ona egin zuen, animalia zuzen zuzen erabili baitzuen.

Berrehun eta berrogeita hamar ikuletik gora bildu ziren eta denok edo gehienak pozik irten ziren ikusitakoarekin, eguraldi aldetik laguntzarik izan ez bazen ere, proba ona ikusi baitzuten. Idien lanerako probaleku berria oso ondo dago eta denbora guixi barru, obrak aurrera segitzen badute, probaleku ikusgarria gertatuko da.

Rufino ELIZALDE